




AZPEITIAREZ

NATUL



AZPEITIAREZ
NATUL

- Egilea: Natul Euskara Elkartea
- Laguntzailea: Uztarria Komunikazio Taldea
- Diseinua: EREGI, Euskara eta Komunikazioa
- Ilustrazioak:
 - Carmen Olano Iriarte
 - Enok Sudupe Altolagirre
 - Iñaki Martinez Albizu
 - Irune Aramendi Alberdi
 - Itziar Aranguren Arrizabalaga
 - Julen Agirre Egibar
 - Lierni Varela Egiguren
 - Nerea Etxaniz Colinas
 - Olatz Aguado Aranburu
 - Olatz Alkorta Martin
 - Xanti Agirrezabalaga Zeberio
- Argitaratzailea: Azpeitiko Udala
- L.G.: SS-00712018
- ISBN: 978-84-697-9189-9
- Inprimaketa: ORVY

AGURRA

Esku artean duzun lan hau ez da hiztegi bat, ez da azpeitiarrez egiteko jarraibideak ematen dituen eskuliburu bat. *Azpeitiarrez Natul* liburuxkaren helburua da ustez azpeitieraz jator hitz egiten ari garenean erabiltzen ditugun hitzak eta esamoldiek leku komun batean biltzea. Euskalki aberatsa dugu Azpeitian, denborarekin berritzen eta aldatzen ari dena. Ahozko jardun hori gordetzeko asmoarekin sortu genuen proiektu hau, gure altxorrari balioa emateko.

Azken aldian gai honen inguruan sortu izan diren eztabaiden harira, argi utzi nahi genuke gure iritziz bai euskara batuak eta bai euskalkiek, guztiek dutela beren lekua eta funtzioa euskararen munduan. Biak osagarri ikusten ditugu. Euskara batuak ezinbesteko ekarpena egin du alfabetizazioan eta hizkuntzaren normalizazioan, eta euskara batuari zein hura sortzeko lan egin zuten guztiei zor diegu, hein handi batean, Euskal Herrian gero eta euskaldun gehiago egotea.

Euskalkiari ere bere lekua eman nahi diogu, baina, kasu honetan. Neurri handi batean euskalkiak egiten gaitu berezi azpeitiarrek, eta euskaraz egiteko modu hori gure nortasunaren zati da. Gure euskalkia bizi-bizia da, gure herria bezala, eta identifikatuta sentitzen gara berarekin. Azpeitierarekin josten dugu gure bizitza eta gure jardun informal osoa, eta horri duen garrantzia eman nahi genioke.

Azpeitiarrez Natul egitasmoa duela urtebete sortu genuen, 2016 bukaeran, eta urtebetean zehar ehunka herritarrek parte hartu dute hitzen bilduma hau osatzen. Herriak eginiko liburuxka bat da honako hau; zuek, alegia. Herritarrok gorpuztu duzue egitasmoa eta herritarrontzat argitaratu dugu liburuxka.

Natul Euskara Elkartearen egitekoa izan da jasotako ekarpenei galbahea pasatzea. Lan hori ahalik eta zintzoen egiten ahalegindu garen arren, ziur gaude hartutako erabaki guztiekin ez genuela asmatuko, baina zuen laguntzarekin joango gara gauzak gero eta hobeto egiten.

Behin galbahea pasatuta, liburuxka honetan honako hitz eta esapide hauek bildu ditugu: batetik, Azpeitian soilik erabiltzen diren hitzak, edo beste toki batzuetan ere erabiltzen diren arren, Azpeitian esanahi edo presentzia berezia dutenak; eta, bestetik, Azpeitian tradizioa izan duten hitzak, eta, gaur egun, dagoeneko erabiltzen ez direnak edo beste modu batean erabiltzen direnak. Atzo eta gaurko hitz, esapide, toki-izen eta konparazioak, biharko azpeitiarrentzat.

Proiektu honen xarma da oraindik itxi gabe dagoela, bide asko duela egiteko. Oraindik milaka hitz geldituko ziren, jakina, liburuxkatik at. Azpeitiarrez Natulen webgunea osatzen jarraituko dugu, beraz, eta espero dugu zuek ere bidelagun izaten jarraitzea.

Naturek egindako lanaren erakusleihu izan da 2016an hasitako prozesu guztian Uztarria Komunikazio Taldea, eta egindako lana liburura ekartzea ere ezinezkoa izango zen herri hedabidearen laguntzarik gabe.

Mila esker, proiektu honetan parte hartu duzuen herritar guztioi, liburua edertzen lagundu duzuen marrazkilarioi, Uztarria Komunikazio Taldeari eta Azpeitiko Udalari.

A

ABERIYE EUKI: burutik jota eon.

"Horrek zaukek *aberiye*! Idea bat natulik etzaukek!".

ABITANEN PIÑUPIEN KARTA JOKUEN IBILI: hilda eon.

"*Agure horrei're, Abitañen piñupien karta jokuen ibiltzeko* etzikon asko falta!".

ABIYARIE: erritmo axkarra.

"Hoi *abiyarie* zamakina korrika pasau dan horrek!".

AFAI-PAXARIE / AFAI-LEGIE: afaye.

"Berandutzen ai zaku ta *afai-paxarie / afai-legie* eitea jun beherko deu, ezta?".

AHARI-ARDUE: ardo txarra (ahariyei ahari-jokuen aurretik eman ohi zitzekobena).

"Hoi dek *ahari-ardue* atea digubena aldameneko tabernan! Bela eskakoiat berriz!".

AHO-HAUNDIYE IZEN: fanfarroie izen.

"Hori *aho-haundi* bat den, beti kristonak ein beher ditula esaten!".

AHOKAIE: morreue.

"Danan aurrien *ahokaie* emantzitean, ta ni lotsa-lotsa einde".

AIBAYON/H!: otzon/k, tori.

"Gerra earra ematen ai haiz ta *aibayon* hire goxoki zahar hori!".

AKA(B)O BA!: hoixe!

"Karnabaletan erten beher al dezue disfrazaute?

Aka(b)o ba!".

AKAAI TXIITO!: ez flipau.

“Hi, jungo al gaituk Zumaira oinez?

Bua, *akaai txiito*! Nerekin ez kontau hortako...”.

AKORDAU:

1. adiera: gogorau.

“*Akordatze* al haiz txikitan nola ibiltze giñen?”.

2. adiera: konturau.

“Ez naiz akordau txarreterie irikite naukela. Ridikulo earra ein det!”.

AKXIYUE EIN: bere ustez zeoze haundiye ein dunien, baño hainbesteañokue ez daniel.

“Hoi dek *akxiyue ein* dekena, e! Gustoa geldiuko hitzean?”.

ALBAKAIE: ahariyek aldamenetik emateun burukaie.

“Ahariyek *albakan* jo zian! / Ahariyek *albakaie* eman zoan!”.

ALBANDORRATZA: josteko orratz haundiye.

“Zaku hori josteko *albandorratza* beherkoñat”.

ALDIE!: askoz hobeto.

“Eskubiko bidie hartu diat azkenien, ta aldie!”.

ALLAU: heldu, iritsi.

“Autobuse Azpeitira *allatzeanien* abixaukoizut, bale?”.

ALPERLANA: alperrik eindako lana.

“Atsalde osue pasau diat hori eiten, ta azkenien, *alperlana* izen dek!”.

AMORRAYE: malizi pixket daukena.

"Hi haiz *amorraye*!".

ANABASIE: kaosa.

"HHko gela hartan kriston *anabasie* zeoan, ta irakaslie lasai-lasai exerite".

ANDAPANDANGUN IBILI: parrandan ibili.

"Atzo *andapandangun* ibiliko hitzean ta gaur jaiki ezin!".

ANDARIE: panpine.

"Nere ilobak *andarie* eskau diyo Olentzeroi".

ANIMAIAK EZ: jende gutxi, inor ez.

"Lehengo zapatuen *animaik* ez zabilenan kalien!".

ANTERONAK EIN: eundokuek ein.

"Anteronak eindakuek gaitun gu gaztetan!".

ANTUXINE/ANTIXUNE: edalontzi mota bat.

"Nere izekok kafie hartzeko *antuxiñ* politt askuek zazkek etxien!"

AMETIU: onartu.

"Eztiñat *ametiuko* nei hola hitz eitie. Lotsaik eztauken!".

APAJUE/APAREJUE: pertsona malizidune, bihurriye.

"*Apajo* earra einde zion hire iloba hori!".



APOPILLO:

1. adiera: morroie.

"Ni enaun iñon *apopillo* izengo... bakoitzek arreglatzie zauken ahal dun moruen!".

2. adiera: ostatu baten bizitzen daona.

"Zestuar hayek Artetxenien *apopillo* eon omen hituan urte askuen!".

ARABAKIYE: petatxue.

"Ume horrek prakak puskaute zauzken, baño *arabakiye* jarri gañien, ta listo!".

ARAKAIZTU: kallue ein, faltsuen zikatrizau.

"Bihetzien ebai bat ein ta *arakaiztu* ein zat, ondo zaitu ez nulako".

ARBIALDI: urte.

"Zenbat urte dauzkezu? 28 *arbialdi*".

ARDAGAYE BAÑO LEHORRO IZEN: lehorra izen.

"Tipo hori *ardagaye baño lehorro* den, beti hasarraute bezela zion ta beakin konbertsaziyo batien tokau ezkeo ez tin iye kasoik eiten".

ARGIOLLARRA: espabilaue.

"Hoi dek *argiollarra*! Beste danok tontuek geala pentsatzeik!".

ARIO: okerro.

"Umiek baño *ario* ibili hunan barrakatan. Leikenik e!".

ARPILLERIE: bayeta, arraskako trapue.

"Nun da *arpillerie*? Nik beti arraska azpiyen uztet, baño oin falta da".

ARRANPALO: batayo ondoren botatze zan dirue.

"Gure garayen umie batayau ondoren *arranpalue* jasotze giñenan; oin batayatz eztatuzenez, ezer ez!".

ARRASTAIE: urraue.

"Bizikletan nijuela eroi ta kriston *arrastaie* ein det belaunien".

ARRAYE: malizi pixket daukena.

"Gaur atsaldien'e jai eiteko morue ein al den? Hi haiz *arraye*!".

ARTAKAXKARRA: dopiñe.

"Gaur eguneko xiklistak beherko hartu *artakaxkarra*. Bestela, eiteituztenak eingoitunik etziok!".

ARTALE BAT FALTA: burue guztiz betie ez euki.

"Usteiat hire bizilagunei *artale bat falta* zakola".

ARTIKULO TRES, LATA PUTEIK EZ! : kasoik ez ein.

"Adarra jotzen haste bazaixkik, badakik: *artikulo tres, lata puteik ez*!".

ASTAPAOLAK: astakeyek.

"*Astapaola* earrak aitu giztenan lehengoko afayen!".

ATAJUN ZION/H! : urruti eon.

"Hareaño oñez jun beher deula? *Atajun ziok*!".

ATXO-PAOLAK: marmarrak.

"Ze *atxo-paola* die hoyek? Ixildu ta segi lanien!".

ATXOPABIE: tiabuenie.

"Kriston *atxopabie* einde zion hire lehengusue!".

ATXOPUTIE: oso gaixtue dan emakumie.

"Karreran euki gendun irakasle hure *atxoputa* bat hunan!".

ATXURRE HARRAPAU: mozkortu.

"Lehengo zapatuen kriston *atxurre harrapau* nian!".

ATZEAKAIE: perezie eo nazkie.

"Kriston *atzeakaie* emate zin biyer goizien Xoxotea bizikletan jutiek".

ATZEBIKOTXA: ganau klase bat, ipurdiyen bi masail eder zauzkena. Pertsona ipurtaundiye izendatzeko ere ibiltzea.

"Gure attittek esateu beak behi *atzebikotxa* zaukenien harro jute zala perire".

ATZEKO KURRUNPERIE: ipurdiye.

"Moitu *atzeko kurrunperie* ta ekarri umiek ikastolatik derrepentien!".

ATZENA: azkena.

"Lehengoko laxtreka-apustuen *atzena* alleau nitzen, baño gustoa!".

AMETIU: onartu.

"Eztiñat *ametiuko* nei hola hitz eitie. Lotsaik eztauken!".

AXAYE: malizi askodune.

"Tipo hori *axaye* den, ta kontuz ibili".

AXKIRAU: adiskidetu, pakiek ein.

"Astebete hasarraute eon ondoren, azkenien, gaur *axkirau* ein gea. Oin parranda guez zelebratzeko!"

AXKOITIARRA EMATEN/K!: batenbatek xano erteeran bat eiten dunien-eo.

"Esandako aldrebeskei danak xinisteituk... *Axkoitiarra ematek!*".

AXKOITIARRA IZEN BEHER...: axkoitiarren batek axkoitiarkein bat eite dunien.

"Hire lagun axkoitiar horrek bota dik xano-erteera earra! *Axkoitiarra izen beher...*".

AXKOITIHO EZTARRIRE: kontrako eztarrire.

"Txuleta puxketie *Axkoitiko eztarrire* juntzitenan. Kriston estusune pasau niñan!"

AXKOITIHO BIDETIK JUN: kontrako eztarritik jun.

"Bokadillo puxketie *Axkoitiko bidetik jun* zitek ta kriston eztul sayue ein diat!"

AXKOITIHO EZTARRIRE



AZPIARMONIYEN: marmarren.

"Beti *azpiarmoniyen* habil, motel... Lasaituko al haiz behinguatik!".

AZTARRANIK EZ EUKI: ezer'e ez jakin.

"*Aztarranik etzaukenat* harea nola jutean. Google Maps-en beitu beherkoñau!".

AHAZTUAI NEEKIN: nerekin ez kontau hortako.

"Gaur iluntzien jungo al gaitun Zumarrako festata? Puff... *ahaztuai neekin!*".

B


BADEN/K (EULIYE, UMIE, JENDIE...): eozer gauze asko daonien.

"Atzo atsaldien *bahuan jendie* herriko plazan!

Egualdi onakin jendie eztala etxien gelditzen!"

BADEN/K

(EULIYE, UMIE, JENDIE...)



BADER HILETIE!: beti kejatzen ai danai esate zakona.

"Oaiñ'e kejan ai al haiz? *Badek hiletie!*".

BAGITXITXIN: baguez.

"Oain *bagitxitxin*. Eongo gaitun Karnabalan buelta hortan!".

BAJAARI!: lasaitu hai.

"*Bajaai*, hi! Ze presa daukek?".

BAJINA BAT: makina bat.

"*Bajiña* bat txuleta jan genixkian hire etxien, e!".

BAJONDEIZULA!: zorionak.

"Selektibidadie aprobau al dezu? *Bajondeizula*, aizu!".

BALDINBAITE: noski baietz, akao ba!

"Hi, aurtan mozorrotu beher al dek Karnabaletan? *Baldinbaite* moteil! Urtero bezelaxe".

BALEKUE: onargarriye.

– "Ze mouzkue zeonan atzo ein hunan bizkotxue?

– *Balekue*. Jendiek gustoa jan ziñan behintzet!".

BAPUE: ona-eo.

"Gu're ezgaituk *bapuek* izengo baño... /Ez hao *bapue*!/Egualdiye ez hunan *bapue*..."

BARRA-BARRA: asko.

"Harek zaukean etorriye! Txistiek *barra-barra* botatze ziztean!".

BASTANTE NOLABAIT: gaixki.

"Nere etxepeko attona hil den. *Bastante nolabait* zabilenan aspaldiyeen".

BATANAZ BESTE: batez beste.

"Egunien zortzi klase-ordu zazken gazte bakoitzek *batanaz beste*..."

BATEMAT: norbait.

"*Batemat* zebilenan atzo gure etxe azpiyen bullaka.

Ezin lo hartute ibili nitxunan gaba osue, hi!".

BAZIAN HAREK KONTUE TA ABARRA!: ixildu're eite eztanaz esan ohi da.
 "Ez huan ixildu're eiten. *Bazian harek kontu ta abarra!*".

BAZKAYE POXPOLUEN EON: bazkaye oindik hasi're ein gabe eon.
 "Hau dek fundamentue! Oindik *bazkaye poxpoluen!*".

BEGILUZIE: inbidiosue.
 "Tarta whisky eskau din ta proaure ez tin ein...*Begiluzie* den, ba!".

BEGIRAZUNE: begiratua.
 "Kriston begirazune ein dit neska horrek pasau naizenien. Nik ze ein ote diyt ba!".

BELA:
 1. adiera: berehala.
 "Etzan *bela* alleau afai hori eiteko egune!".
 2. adiera: ezta pentsaure.
 "*Bela* eingoet nik hori!".

BELARRERTZEKUE EMAN: zaplaie-eo eman.
 "Ixiltze ez ba haiz *belarrertzeko bat emangoiat!*".

BELARRIYEK: titiye.
 "Hoi *belarriyek* dauzkena horrek!".

politte^{u u} haundiye^{u u}
 txikiye^{u u} ximurrek^{u u}
 esk ez^{u u} ezk ez^{u u}
 ez esk ez esk^{u u}
 Belarri 1 eo 2
 beti aurrea ein.

BELARZABALA: belarri-zabala.

"Hire iloba hori *belarzabal* xamarra ez al da?"

BELIENA EIN: pagau gabe ospa ein.

"*Beliena* eiteko itxura dana zaken Garazik. Gaurkuen etzonau utziko!"

BERNA-HEZURREKUE HARTU/EMAN: kolpie hartu hankan.

"Hoi *berna-hezurrekue* hartu detena eskaileratan eroita!"

BEROPUTIE: kriston berue.

"Hoi *beroputie* ein zuna atzo! Izotzetan bañatzeko goue emate ziñenan!"

BERUE EMAN: latie eman, gogaitu.

"Hoi dek *berue ematen* ai haizena! Nazkau ein beher nauk!"

BESTE BAT(EK) NEKEZO!: batemat kapaza dala adierazteko.

– "Hire lagunek apustu bat ein dula ta Loiola kinkirrinien jun dala esan ziben.

– Bai, *beste bat nekezo!*"

BESOZUZTERRAK EUKI: beso fuertiek euki.

"Egun osue ginasiyuen sartuta pasatzeik. Enauk harritzen dauzken *besozuzterrak eukitziekin*".

BIDETXURRE: bidezidorra.

"Ikasberrira juteko *bidetxur* berriye ein diabe Esklaban parien. Ikusi al dek?"

BLAKAMAN EMATEN/R: piura xelebriekin edo tximoso daonin norbait hola deitze zako.

"Hoi dek piurie! *Blakaman ematek!*"

BLASTAIE: zaplaie, zaplastekue.

"Hi, ixiliken eon hai, bestela *blastaie* emangoiat!".

BLAYE HARRAPAU: busti.

Etxea nijula euri zaparraie bota din ta kriston *blaye harrapau* diñat!".

BURUGORRA: burugogorra, eoskorra.

"*Burugorra* haiz gero, e! Behin idea bat buruen sartu ezkeo, eztek belakun aldauko!".

BURUKOMINTSUE: buruko miñe askotan eukitze duna.

"Kriston suertie dauket, ez naiz bate *burukomintsue*".

D

DANBATEKUE:

1. adiera: danbatekue hartu, kolpe haundi bat hartu.

"Kriston *danbatekue* eman ziek baloiek!".

2. adiera: zarata haundiye, leherketa batek eragindakue, adibidez.

"Hamaiketik alde hortan kriston *danbatekue* aitu diat, usteiat tallerren baten zeeze lehertu dala".

3. adiera: danbatekue harrapau, mozkortu.

"*Danbateko* earra harrapau huan atzo, e?".

DA(RA)TULUE: taladrue.

"*Datulo* bat lortu ta konponketa batzuk ein beher ditxiñat".

DERREPENTIEN: segituen.
 “Etorri honea, *derrepentien!*”.

DERRIORRA AL DA?: (esamoldie).
 “Harea jutie *derriorra al* da? Ez neska, derriorra hiltzie bakarrik den!”.


DESDITXIE: zalapartie,
 iskanbillie.
 “Ba huan han bullie ta
desdixie motel!”.

DITXOSOZH0: hainbestetan
 aitutako hori.
 “Hi al hitzean *ditxosozko*
 Mikel hori? Banakean goue
 hi ezautzeko!”.

DIXKURAU: nahastu.
 “Euskerako azterketan
dixkurau ein nitxunan
 galdera baten, ta irakaslie
 ezten konturau!”.

DIXKURUEN: nahigabe.
 “*Dixkuru*en okerreko botoiei zapaldu nitxoan, ta kontaktu danak borrau ziztek
 mobilletik”.

DRIXKEN IBILI: hasarre ibili.
 “Ontxen’e *drixken zabiltzen* bi hoyek... beti berdin ditun!”.



E

EARKI BATEN: earki.

"Earki baten ibili giñen Herri Urratsen!".

EATXI:

1. adiera: deborau.

"Bi segundotan eatxi zian gizon harek parien zakean txuletie".

2. adiera: bota/menderau.

"Horrek daken inderrakin, laste eatxiko hau".

EKATZU: emaizu.

"Ekatzu mahai gaineko liburu hori".

EMAN: Azpeitin "eraman" esanayekin ibiltzea.

"Nik bi ardo-botile emangoitut afaire!".

EMAN BEHER: badirudi.

"Eman beher gaupasa ein dezula! Hoi piurie ekarri dezuna...".

EMANEZINĒ: elkarrekin ondo eman eziñe.


"Hoi da emaneziñe daukebena bi anai hoyek!".

EMATALLIE: daukena errez emateuna.

"Oso ematallie da nere iloba. Bere goxokiyek lagun danai eskeintzeizko".

ENANITUE: pertsona txikiye (nanismoa duena).

"Tronu-jokuetako onena enanitue dek, harek bai jakin!".



ENPAZTU, ENPAZIEN GELDIU: zorrik gabe geldiu.

"Gaur ein detenakin *enpaztuko* nian hirenik naukean zorra, ezta?"

EPINEKUE HAIZELA USTE AL DEN/K?: transparentie haizela uste al den/k?

(EPInekue = kristal dendakue)

"Hi, *EPInekue haizela* uste al dek?"

Aldeyok atzea, ni hi baño lenuo etorri nauk eta!"

ERASANA: afektau, eragiñe euki.

"Nik etzakiat zer zauken atzoko sagarduek, baño kriston *erasana* sentiu nian".

ERDIBITARTEKUE: ez haundiye ta ez txikiye.

"Ez nekiyenar ze talla beherko zun, ta *erdibitarteko* bat hartu nitxonan".

ERDIKALEKO FESTAK:

hilekue.

"Ni enitxin parrandie botatzea gaur. *Erdikaleko festak* allau zizten, ta kriston kazkarreko miñe zakenat".

ERDI PERTZA: erdi bana.

"Bokadilluek *erdi pertzak* ingoitugu, bale?".

ERDIPURDIZKE: ez ondo ta ez gaixki, hasita baño bukau gabe.

"Lanak *erdipurdizke* einde alde ein dik gaur e! Beti badik aitzakin bat...".

ERDOKIE: zikiñen kapie.

"Hoi kuxidadie... Garbiu zak lepo inguruen dakekan *erdokie* jainkun izenien!".

ERETIE: zaratie, bullie.

"Kriston *eretie* zaonan sozidadien. Ez hunan giro!".



ERNEAU: hasarrau, desesperau.

"Orratzien hariye ezin sartuta, *erneatzen* ai nitxian, ta utzi ein zoat! Biyer sayauko nauk berriz!".

EROKIYE: egokiye.

"Hire alaba oso *erokiye* dek bizikletan ibiltzen, urrutire alleauko dek!".

ERREMOTA: txibota.

"*Erremotakin* trukon bat eiten ba al dakik?

Guk polittek eite gitxian gaztieki giñenien!".

ERRETXINDUTA EON: petralduta eon.

"Atte *erretxinduta zeonan*, ze bart gabien berandu allau nitxunan etxea!".

ERROBERIE: gurpille.

"*Erroberie* pintxau ziten... Beti nei pasau beher holakuek!".

ERTEERIE: ate(r)aldiye.

"Kriston *erteerak* botatzetxin hire alaba txikiyek! Nahiko parre eiteñau!".

ESANGO ZOAU!: ez horreatik!

- "Hi, *eskerrik asko* gaur laguntzeatiken!

- Bai... *esango zoau!*".

ESPORTAK: belauneañoko galtzerdi luziek.

"Akordatzen txikitan nola ibiltze giñuzen *esporta* zatar batzuk, txuriyek ta goyen bi marra gorrikin?".

ESTE-SOBRIE: apendizie.

"Nere attek *este-sobrie* kenduta zauken".

ESTANPAKUE HARTU: kolpe haundiye hartu.

"Txirindulai bat dana emanda zijuan, irristau ta kriston *estanpakue hartu* zian!".

ESNIE ZORAU: mindu, txartu.

"Atzo gosaltzeko hartu nian *esnie zoraute* zeoan, ta gaur beherakuekin egun osue".

ETA HONEKIN ENPAZ!: Batemati dirue juxtu emandakuen eo bueltaik hartu nahi eztanien.

- "Zenbat dezu?
- 68 xentimo.
- Otzi 70 xentimo, *eta hola enpaz!*".

ETXEKONEKUE: bi etxebizitzako baserriyen, teilape igualien bizi dan aldameneko bizilagune.

"*Etxekonekuek* eztituk oporreta jun udara hontan, atzo argiye ikusi nian hayen kuartodebañuen...".

ETXEPEKUE: bizilagune, aldemenekue.

"Ni inoiz ez nauk joten *etxepekuen* bilerata, beti afalorduen eiteituk eta".

EUNDOKUE: kristona.

"Gaurko antzerkiye *eundokue* omen dek, Goenkaleko aktoriek eiteiabel!".

EURRE ATEA: fundamentue atea.

"Berandu hasi gaitun, baño kriston *eurre atea* ta atsalde erdireko bukau diñau sagarrak biltzie!".

EURRE EMAN: palizie eman.

"Atzoko partiduen *eur* earra *eman* ziyoabea gorriyek!".

EURRE HARTU: palizie hartu.

"Hoi *eurre hartu* nuna atzo mendiyen! Ni zuekin ez nitxin geyo!".

EXKALLUTA AL HUE?: praka luziek motz dauzkeunien esan ohi da.

"Ze eitek praka hoyekin? *Exkalluta al hue?*".

EZ GEA ALPERRIK GALDUKO: moldauko gea.

"Oporreta guez ta ezteu lo eiteko lekuik hartu, baño ez gea *alperrik galduko!* Zeoze bilauko deu!".

EZ SI TA EZ NO: ezer esan gabe.

"Gustoa-gustoa genbiltzen, ta *ez si ta ez no*, etxea aldein zun!".

EZTA GIRO!: ezta kontu onik.

"Bat mobillekin denbora osuen, ta bestie hitzik ein nahi ezta; etxe hontan *ezta giro!*".

EZTA GUTXIYOIKE: (esamoldie).

- "Hik ze ustek, ni enaizela kapaza hori eiteko?

- *Ezta gutxiyoike!* Bazakiñat nik hori ta geyo eiteko kapaz haizela!".

F

FESTIE EON: pillie, mordue eon.

"Jayero jute nauk plaza kafe hartzea, ta hor eotek hor ume *festie!*".

FUNDIU: diru dana gastau.

"Sanfermineta jun ta kobrauteko dana *fundiu* ginenan".



G

GAITZE: gaixotasune.

"Horrek zaukek *gaitze*, egunero jokuen zebilek!".

GAJOMARTA: gajue, zanpana.

"Hi haiz, hi,
gajomarta!".

GALANTA DEN/H: ez da
harritzekoa.

"Gaurkuen'e berandu
al zetorren Patxi?
Galanta dek!".

GALAZI: galerazi.

"Medikuek *galazi* ein
zin ogiye jatie".

GANORIE: fundamentue.

"Kriston *ganorie* zauken hire semiek. Asko baliyo din lan hortako".

GARROTIE: sasoie, fundamentue.

"Hire alaba horrek kriston *garrotie* zaukek. Egur earra emango likik Xoxoten gora!".

GENEKEGULA: gendukela.

"Lehenguen esan nizun ba basariyen asto txuri bat *genekegula?*
Ba ume eiteko dao".

GERRIBUELTIE: gerrialdie.

"Gabonetako turroiek earki antzemate zatxik, earra *gerribueltie* daukekena!".



GEZURRETERUE: gezur asko esateituna.

"*Gezurretera* bat den nere iloba txikiye. Ta gainea, etzikon antzematen gezurretan ai danien!".

GINIHOGUN: geneuken.

"Gu txikiyek ginela telebisiyo bakarra *giñikogun* etxien. Oingo familiyek, gutxiyenez, hiru dauzkebel".

GOLPE GOORRIK JO GABE: bate lanik ein gabe.

"Atsalde osue *golpe goorrik jo gabe* pasauta, nekaute haola?".

GOMA-HOTSA ATAIEZ: kotxien azkar jun.

Goma-hotsa ataiez han pasau hunan. Auskalo zertako presie zauken!".

GOMAUURUEN JUN: ziztu biziye, oso azkar (kotxiekin).

"Hori erreizidarra izengo huan, *gomaurruen zijuan* ta!".

GOUE AUZUN: gogoik ez euki.

"Etxiek bazaukek garbitzeko premiye, baño *goue auzun!*".

GOUE HANKA AZPIYEN: bate gogoik ez.

"Behingoz hasi ein beherko nikin lanien, baño *goue hanka azpiyen!*".

GORRAIZIE EUKI: gortasun ariñe euki.

"Gure amak *gorraizie* daukela esatein, baño nahi duna majo aitzein".

GUARDASOLA: aterkiye, euritakue.

"Euriye eiteunien *guardasola* hartu ta paxira eitea ertetze naun Lasao aldea".

H

HAIXEATUTE EON: harrotuta eon.

“Nei ez hai *haixeatu*, haiziek ti-ta bajakotxiat eta!”.

HAIZE-BISUTSE: haize miñe.

“Hoi *haize-bisutse* zeona atzo atsaldien. Dardarka alleau nitxiñenan etxea!”.

HAMARDUROKO HITZEK: hitz potoluek, dotoriek.

“Nei ez hitz ein *hamarduroko hitzekin*, normal hitzeinda’re entenditzeñat!”.

HAN ORDUKO HEMEN: seituen hemen.

“Txalintxoia al hijue mendi bueltie eitea? Hi ezaututa, *han orduko hemen* haiz!”.

HANDIK O HEMENDIK: edonola.

“Hi lasai eon ai, *handik o hemendik* lortuko diau ta”.

HANKA BAT ABITANEN: hiltzeko asko falta etzakonien.

“Azkenengo bi urtietan hanka bat *Abitañen* zula eon den, ta azkenien hil ein den”.

HANKA-JOKUE ATEA: nunbaitetik azkar aldein.

“Lehenguen sagarrak harrapatzea jun gitxiñan goiko basarira, ta nagusiye azaldu zanien, hoi den *hanka-jokue atea* genuna!”.

HANKATXABALKA: hanka zabalka.

“Lehenguen mendi-bueltie ein ta izter-barrenak dana urrau ziztenan.

Hankatxabalka bukau niñenan!”.



HANKAMAKILLEK: hanka mehiek.

"Nik etzakiat *hankamakille* hoyekin Xoxotea hain axkar nola iyotzean!".

HARRIKAIE EUKI: pitzaue euki, zoro xamarra izen.

"Horrek zaukek *harrikaie*! Ein ein beher dik hori!".

HARTU ARTE: kolpie hartu arte.

"Hik segizak nahekena eiten, *hartu arte!*".

HARTU ARTE I KONPANIA: batemat latan ai zaigunien, mehatxu moduen esateana.

"Xaxa ta xaxa ai haiz..."

Ze, hartu arte i konpañia?".

HARRITXINTXORRA: harri txikiye.

"Patiñetan ibiltzen ai nitxunan, ta *harritxintxorretan* estropuzka ein diñat!".

HAU DEK ESTANPIE!: a ze panoramie.

"Ni etxea presaka jun ta *hoi da estanpie* billau nuna: bat zurrunkaka ta bestie telebisiyuen aurrien atontaute!".

HAUNDI AÑE LERDO: ikaragarri lerroa.

"Barkaien, baño... hire gizona *haundi aña lerro* den!".



HAUNDIORKI: haundiyenak-eo.

"Ganbarie txukuntzen hasi gaitun ta *haundiorkiyek*, behintzet, bota ditxiñau basurea gaur atsaldien!".

HAUNDIAZIYE: bere edadeako asko hazi dana.

"*Haundihaziye* zion zuen txakurre. Oindik hiru hilebete etzazken ta beituon ze bitxo daon!".

HEU POITTE! zeu earra.

– "Etziten gustatzen hire illeko tinte berri hori, ez hao bate ondo
– *Heu poitte*, hi!".

HI ETXEAKO!: batematek faore bat indakuen-eo esker onez esateana.

"Hoi dek faorie ein dikena.
Hi etxeako!".

HI HAIZ ANDALUZE!: esajeraue.

"50 pastel jan hituala? *Hi haiz andaluze!* Seguru bost'e ez hituala jan!".

HIK FLIPAU ITEK!: (esamoldie).

"Hiru buelta ein ditukela gaur Xoxotea? *Hik flipau itek!*".

HILTZEKO MINUTUE FALTA: ito-ito inda, larri-larri (kirola eiteakuen erabiltzea).

"*Hiltzeko minutue falta* zian meta alleau zanien! Eskerrak gu han geunden!".

HI, LAAIK PAKIN!: (esamoldiek).

"*Hi, laaik pakin!* Hoi dek latie ematen ai haizekana!".

HI, POTRO! : lagun mutil bati konfiantzaz.
"Hi, potro! Ze kontatzeituk?".

HI, TXIKITO! aizak.
"Hi, txikito! Ez al dek aitzen ixilik eoteko!".

HIRUTXIKIKO BOTILLIE :
 750 ml-ko botillie.
"Normalien, ardo botillak hirutxikikuek izeteie".

HITZIN TA HORTZIN:asko
 esatean zeoze.
*"Etzakiat nola arreglatze
 haizekan, baño hik
 madarikaziyuek hitzin ta
 hortzin beti!"*

HOBETO... GAIXKI! : eziñ
 hobeto.
 – *"Ze mouz ibili ziñeten
 atzo?"*
 – *Hobeto... gaixki!"*.

HOI ASUNTUE! : hoi da marroie, lana, anbientie...
*"Hoi asuntue zeona lehengo zapatu gabien kalien! Ez nun asmo horrekin erten,
 baño azkenien parranda ein beher!"*.

HOI ATSALDIE! : atsalde earra eo atsalde txarra.
"Hoi atsaldie eman ditena gure ume honek! la biyerkue hobeto jutean!".



HOI IXKUE! : esamoldie, batemat haundiye dala esateko ibiltzeana.
“*Hoi ixkue* dana pelotai hori! Telebisiyuen eztu hainbestekue ematen”.

HOI MOBIDIE! : hoi marroie, arazue, bronkie...
“*Hoi mobidie* euki nuna gurasuekin familiko bazkaira beandu alleau nitzelako!”.

HOI PERKALA! : anabasi, desorganizaziye, istillue...
“*Hoi perkala* billau nuna oporretatik etxea alleau nitzenien! Etxe guztiye hankaz gora ta txerri einde!”.

HOI ZEBAU! : zeeze asko ein.
“*Hoi zebau* atzo afaltzen! Kriston perretxiko pillue jan giñuzen!”.

HONDUE: ajie.
“Klaro! Bart kriston parrandie bota ta gaur *honduei* bueltie eman ezinde hao”.

HORRETXEATIKENTXE: horreatik.
“Euri zaparraiek harrapau zaitula? *Horretxeatikentxe* esan dizut etxetik ertetzeako guardasola hartzeko!”.

HORTZETAKUE HARTU: kolpe haundiye hartu.
“Kriston *hortzetakue hartu* dik tipo horrek eskiatzen”.

HOTZAATIK BAZEBILEN/K! : mozkortuta.
“*Hotzaatik bazabilean* atzo hire lagune! Gaur goxue eongoek!”.

I

IBILI IBILI INDA... : zezzerren bile-eo ibili, ta azkenien konponbidie hasieratik gertu geneukenien.

"*Ibili ibili inda*, azkenien, oain esateiabe adituek dietaik onena tokiyen tokiko baratziek emateiguna jatie dala".

IDIOTA MERKIE : idiotie (oso).

"Ezten erreza hi baino lerdue izetie, dana xinisten! *Idiota merkie!*".

IKIXI : Ikasi.

"Erakusten saiatzeie, baño *ikixi* eztakit zenbat eite deun!".

IKULANDUE : ukalondue.

"*Ikulanduekin* jo diat paeta ertza, ta kriston miñe hartu diat!".

ILUNDU ARTEKUE BADAUKEN/H! : denbora asko beherko dula eiten ai dana eiteko.

"Lan hori eiten hastie okurriu al zan? Eneee... *ilundu artekue badauken!*".

ILLETARGIYE : ilargiye.

"Atzo gauien ikusi al huan *illetargiye*? Etzikok asko falta betie eoteko".

ILUNISTENTZIYE : euzkiye sartu ta iluntzen hastean tartie.

"*Ilunistentziyen* ikusi izen ditxiat xaguxatarrak hegan".

INBIXIBLIE : ileako gantxo txiki hoyek.

"Orrazkera xelebre honekin ibiltzeko *inbixiblez* beteta zaukenat burue. Oherakuen izengotxinat lanak danak kentzen!".

INDERRETXIE : zentral elektrikue.

"*Inderretxien* aberin bat eon dala, ta bate argik gabe gaude atsalde osuen".

INPERNUKO TXIKITUE BAÑO GAIXTUO: oso gaixtue izen.

"Bihurriye bakarrik? *Inpernuko txikitue baño gaixtuo* dek!".

INTXANTIE: barregarriye, xelebrie.

"Horrek zauzken erteerak, *intxantie* den!".

IÑAURKIÑEH: ganauen azpitakuek.

"Baserrire atsaldepasa jun, ta iñaurkiñek biltzen jarri natxin gure amamak".

IPURDIKO MAHALAATIH: azkar.

"Kuartue txukuntze ezpau, pagaik eztiyotela emango esan diyotenien, *ipurdiko makalaatik* alde ein du kuartoa!".

IPURTXONTXORREKUE HARTU: ipurdizka eroi.

"Eskalleratan behera netorrela eroi ta kriston *ipurtxontxorrekue* hartu diñat. Akordauko naun egun batzutan".

IRIYENA JO: masturbau.

"*Iriyena jotze* dula esatein, edade hortan majo eingo din!".

ITXAFERUE: suziriye, txapligua.

"Lehenengo *itxaferuk* jotzeako hor eote gaitun Erdikalien nerbiyuek jota!".

ITXULAPIKUE: dirue ahorratzen juteko ontziye.

"Bi euroko txanponak *itxulapikuen* sartzeitut. Ia hemendik urtebetea zenbat diru dauketan!".

ITXUREANTZIN/ITXUREANTZEKUE: onargarriye, txukun antzekue.

"Gaur parranda ein beher denela? Biyerko bazkaire *itxureantzín* azaldu, e!".

ITXURI DANEZ: antza danez, emateunez.

"*Itxuri danez*, aurten Realak asmau din fitxauteko aurrelai berriekin".

IXIKI: eskegi (erropak-eo).

"Erropak *ixikitzen* ai nitzela kaltzetiñe beheko balkoie eroi etzat ba!".

IXIPUE: brotxie.

"Señale dezu, bai, eskolan *ixipuekin* ibili zeatela... Hoyek die praka aldiek ekarri dituzuna!".

IXKOTUE HARTU: asko nekau.

"Hartu diat *ixkotu* earra gaur atxurrien!".

IXTILLE: euriye ein ondoren tellatu ertzetik eroitzean tantue (batzutan kalien guzela kolkuen barrena edo kopeta-erdira eroitze zaigun hori).

"Kale baztarretik nijuen, ta *ixtilek* musupuntan jo nau!".

IZTER-LENGUSUEK: lehengusuek dien bi pertsonan seme-alabak beayen artien izter-lengusuek die.

"Gure gurasuek lehengusuek ditun; ordun, gu *izter-lengusuek*.

Afain bat ein beherkoñau!".



J

JA AYA TA JA DEBA: alde batea ta bestea.

"Aurretik bidie zein zan ez giñenan galdeu, ta *ja Aya ta ja Deba* ibili gitxiñan!"

JAKONITXOKEK/N: emango nitxokek kolpe bat.

"*Jakonitxokek* zapla bat atzeko aho-haundi horri... la behingoz ixiltzean!"

JA HARUTZ TA JA HONUTZ: alde batea ta bestea.

"*Ja harutz ta ja honutz* ibili nitxian, baño ez nian iñor'e billau Erdikale barrenien".

JAN DA JATEKO: ase ezinda.

"Hau den ase eziñe! Hillekue etorri beher zaten honekin, *jan da jateko* nitxion!"

JANTXAKUR: jatun.

"Sanagustinen bildu da *jantxakur* kuadrillie bazkaitako!"

JARDUNE EUKI: hizketan etengabe aritu.

"Hi, ardo-zopak jan al ditu hire lagunek? Hoi den *jardune daukena!*"

JARDUYON/H! : lataik ez!

- "*Jarduyok* mixikordiko ttottuei!.

- Hik *jarduyon* behorrai!"

JATA: kolpe baten, amorruz.

"Garbantzuek jaten bukatze ez baek, *jata* garbiuko haut!"

JATZEMAUT! : jotzen ba haut.

"Nik *jatzemaut* belarri-ertzin, ierrikoyok!"

JAXUE EON: txukune eon.

"*Jaxue eongo* nitxinan ni, porlos, bi ordu bakarrik lo ein banitu!".

JAYE: igandie.

"Udaberriyen *jayero* jute gaitun mendira".

JENTEJERA: jende-modue.

"Ni ez nijue harea. Auskalo ze *jentejera* ibilikoan...".

JIPOIE: egurtue.

"Kriston *jipoie* jaso geniñan aurrekuen fuol partiduen: 5 eta 0, alajañe!".

JIRA-JIRA EINDA: mozkortuta.

"Atzo Ardo Egune zan, ta atsaldeko lauretako *jira-jira einda* neon... Xiexta jun beher izen nun!".

JIRAE: mozkorra.

"Hoi *jirae* harrapau genuna atzo tonto-plantan! Ezta hasiberriyek izen bagiñen'e!".

JITTIE EUKI/ATEA: arpeye euki.

"Sekuleko *jittie* dauke zure ahizpek; era danetare, beti nahi duna eiteu!".

JIY0: gora igo

"Ezetz *jiyo* Xoxotea ordubetien?".

JORNAIE: mozkorra.

"A ze *jornai*e harrapau huana lehengokuen, e?
Ez hitzean bapue eongo hurrungo egunien!".

JO TA PAXA: zeoze gañetik, azaletik eitie (etxeko lanak-eta).

“Denboraik ez natxaukean ta *jo ta paxa* azkar bat ein zoat etxiei, haundiyeak behintzet garbitu ditxiat!”.

JOXEPATXO: neskan hankartie.

“Bidetien garbitzet nere *Joxepatxo* dutxatzeko denboraik eztauketenien”.

JUN HAI JOXEPETERO ZELAIRE! : batemat haizie hartzea bialtzeko (“Josefet” *Bibliako* pertsonaye omen da, ta haren zelaye, berriz, inpernuko ataiye).

“Hi, *jun hai Joxepeteko zelaire!* Hoi dek gerrie ematen ai haizena hire tablet horrekin!”.

JUNE EUKI: zerbaitek ure edo gasa galdu, ixuriye.

“Fontaneruei hots ein beherko zonau, arraska azpiyen *june* zion ta”.

JUNTAIZUE: elkartzie.

“Aspaldiko partez, lagunek *juntaizue* ein geniñan sozidadien”.

K

KABEZULUEK: festetako buru-haundiyek.

“*Kabezuluek* kalien daudenien, ordun bai ume festie!”.

KAFE TORERO: txikiteue-eo luzau ta bate bazkaldu gabe gelditzie.

“Izene, kalea ertendakuen galdu eite gaitun! Batekin ta bestiekin berriketan, azkenien, tabernatako sukaldiek itxi ta guk *kafe torero* ein beher izen diñau!”.

KAIKRUS: cara y cruz (zozketa iteko modue).

“Kotxie zeñek emango zun erabakitzeko *kaikrus* ein giñenan, ta nei tokau”.

KAHA ESPLIKAU: esplikaziyeuk eman ezer esan gabe.

“Taberman *kaka esplikatzen* ai hunan, ta danok alde ein giñenan.”

KAHALERDUE: kakalardoa, intsektue.

“*Kakalerduek* txakurren tamainekuek izen balie, a ze bildurre!”.

KALAMIDADIE: aldrebesa, madarikaue...

“Hi haiz, hi, *kalamidadie*! Bat buena eztek eiten. Parrandatik bueltan erropa zikiñ hoyekin ohera sartzie’re...”.

KALPARRA: goizien esnautekun illien euki ohi deun tontorra.

“Señale dek xiexta earra ein dekela. Beituyok ze *kalpar* daukekan... Songoku ematek!”.

KAMAZPIYE: ohe-azpiye.

“Azkenengo astebetien eraztune billau ezinde ibili naun ta azkenien *kamazpiyen* azaldu ziten!”.

KAMIXETA TXORTERUE: azpiyen zer daon asko ikusten uzten dun kamixetie eo kamixeta sexiye.

"Nun ingurau dek *kamixeta txortero* hori? Earki emateik!".

KAPITESNIE/KAPETESNIE: kafesnie.

"Hau den hotza eiteuna! *Kapitesne* bat hartzea nitxin barruek berotzeko!".

KARRAKOTXIE: goiti-bera, karromatue.

"Ume kuadrilla bat *karrakotxie* eiten ikusi det, ta akordau ein naiz geu're nola ibiltze giñen aldapan beheara!".

KARRERIE: etxeko sarrerie, portala.

"Gaur *karrerie* garbitzie tokatze zaku, Karnabalan ondoren txerri einda eongoa!".

KARRERIXTAK: xiklistak.

"Gure attittek-eta *karrerixtak* hots eite ziyoben xiklistai".




KARTUTXERIE: estutxie.

"Nik *kartutxera* barruen ibiltzeitut arkatzak ta boligrafuek".

KATANDUTA: gogortuta, agarrotauta.

"Goizetan dana *katanduta* jaikitze naun, baño yoga-ko estiramentu batzuk eitiek asko laguntze zin".



KATXARRUE: earra (kotxe katxarrue, neska/mutil katxarrue).

"Hoi den kotxe *katxarrue* erosi denena, hi!".

KEIXAK: gereziyek, udaberriko frutie.

"*Keixak* eo marrubiyek, eztao errexa earrenak zein dien esaten!".

KEIZPIE: itzela.

"Uderan *keizpie* nahi izeteu ganauek".

KENPIXEN KINTAKUE: soldautzaik ein eztuna.

"Hire atte're *Kenpixen kintakue* dek, etzian soldautzaik ein".

KILI-KILI EIN: kilimak ein.

"Besapien *kili-kili eiten* badiyozu, pasauko zako eoskorkei dana".

KINKIRRINE: umien jolasa.

"Ama, *kinkirriñien* ibiltzea guez, ta tiza bat beher deu!"

KINKIRRIÑIN IBILI: hanka baten gañien saltoka ibili.

“Geo ta gutxiyo ibiltzeie *kinkirriñin* umiek. Lehen besteik etzan eiten, baño...”.

KINTALAOSTIAN: urruti.

“Zuen baserriye *kintalaostian* zion, iye mendi puntan!”.

KIXKERTU: geyegi eo dana erre.

“Dixkuraute tostadorie altugi jarri det, ta ogiye dana *kixkertu* zat!”.

KOAOLA/KOAOLAOTILLAN: Coca-Cola / Coca-cola botillan.

“Atsalde on! Ataik *koaola* bat, faorez!”.

KOKOTEKO ZULOAINO EIN: nazkau.

“*Kokoteko zuloaino einda* nitxion gure bizilagunen zaatakin!”.

KOLPE GOORRIK JO GABE: bate lanik ein gabe.

“Atsalde osuen *kolpe goorrik jo gabe* eon haiz! Hola eztaue bela bukauko!”.

KOMERIYE EIN: txiribuelta bat eman lurrien.

“Gaur atsaldien *komeriye* *eiten* ibili nauk ilobakin! Earke pasau diau!”.

KONTU(E)K TA KOMERIYEK: kontatzeko gauzek.

“Hoyek die *kontuek* *ta komeriye* *kontau* ziztena atzo amamak!”



KORKOKXA: txepa, joroba gaztelaniaz.

"Zuzendu hai faborez! *Korkoxa* daukenala ematen!".

KORRIU BEHERRIN: emoxionaute, oso gustoa, erten beherrin.

"Lehenguen Lujanbiok bota zitun bertsuekin publikue *korriu beherrin* geldiu huan".

KOTXEMANDUE: mando automatikuekin ibili ohi dan jostailu motie.

"Umetan Olentzerok ekarri zien erregaloik onena: *kotxemandue!*".

KOTXESILLIE: umiek emateko kotxetxo txikiye.

"*Kotxesillan* emangoiat umie paxira, ia lo pixket eiteun!".

KRIXTONA/KIXTONA: sekulakue, haundiye.

"*Krixton* berue eiteu euzkitan eoteko!".

KRIXTONAK ETA BI: asko (ein), galantak (esan).

"*Krixtonak eta bi* esan nizkonan! Eztiñat uste berriz etorrikoanik".

KUATRO EINDA GELDIU: harrituta geldiu.

"*Kuatro einda geldiu* nitxian kontau zunin! Ezin nian xinixtu!".

KUNETA-ZULUE: errepide bazterreko sakonunetxue.

"Bizikletan nijuela kotxe bat oso gertu pasau zitzetan, ta *kuneta-zulu*en sartu beher izen nun iyiye!".

KUXIDADIE: txukundadeik eza.

"Hau den *kuxidadie* dauketena etxien, eman beher gerran bat eon dala!".

L

LAMARIE: kriston berue.

"Taberna barruen kriston *lamarie* zaonan, ta azkar erten ginenan kanpoa".

LANIXIE: harrokeye, haixie.

"Partidue irabazi diekela ta, ez *lanixetu*, e!".

LANTEYE: lan haundiye.

"Hoi da *lanteye* eman ziguna azkenien txermen danak zuritu ta mermeladie eitiek!".

LANTZURDIE: gauez izotza indakuen goizien belarrak-eta eukitzeun izotz kapie.

"Gaur goizien *lantzurdie* zaonan Loiolako zelayetan. Benetan hotz ein dun seña!".

LAPA-ZORRIYE: alperra baño alperro.

"Hik beti dek aitzakin bat lanik ez eiteko. *Lapa-zorriye* baño alperro haiz!".

LAPURRETERO/A: askotan lapurtzeuna.

"Tipo hori *lapurretero* hutse dek! Beti hemendik eta handik lapurretan!".

LARDABAIYUE: lerdue.

"Hi haiz lardabaiyue! Hori nola ingoek ba?".

LARDAXKAIIE: narraxkeye.

"Ez hai ibili hor *lardaxkan*! Hartu tenedorie ta jan zan fundamentuz!".

LATA PUTIE: lata haundiye.

"*Lata putie* ematea, etxea!".


LATA PUTEIK EZ! : lataik ez emateko esateko ibiltzean espresiyue.
 "Berriz'e horrekin al hator? *Lata puteik ez!*".

LATXEKEN/K: liteke.
 "Hori ezin *latxeken* egiye izen!".

LATZA: earra.
 "Gatibun azkeneko diskue *latza* da, aurrekuek baño hobie".

LAU PELAU: jende gutxi.
 "Kriston kontziertue montau ziaben, ta
lau pelau gatxaudean publikuen".

LAIXTREKA EIN:
 korrika ein.
 "Aurten Korrika
 pasaukoa
 Azpeititik, ta
 hasi beherko
 deu
laixtreka in ta
 pixket preparatzen!".



LEATAGURDIHUE : "lera ta gurdikue", izugarrizko mozkorra.
 "Kriston *leatagurdikuekin* alleau nitxian etxea... Ba al dakik zenbat eran genun atzo?".

LEHORRANEKUE IZEN: pertsona lehorra izen, gatzik gabekue.
 "Egun onik'e eztit esan. *Lehorranekue den* ba benetan!".

LEIKENIK'E: hori izen laikenik'e.

"Aurreko baten Circo del Sol-ea jun giñen ta kontorsionista batek kristonak ein zitun. *Leikenik'e!*".



LEKUTEN: urruti.

"*Lekuten* zion zuen baserri hori!
Iye illundu zigunan alleatzeako!".

LEKUTEKUE: earra, haundiye, kristona.

"Eztala aberatsa? *Lekuteko* etxie zaukek!".

LEPAHEZURREAÑO EINDE EON: nazkaute eon.

"*Lepahezurreaño einde* nitxiok gure goikuekin, ni ohera juteko garayen beti telebisiyue tope eukitzeiabe!".

LEPAKAIE: ustez beher lukena baño diru geyo kentzie.

"Bi zerbeza eran ta hori da, hori, *lepakaie!*".

LEPAZAMARREAÑO: kokoteaño.

"*Lepazamarreaño* einde nitxiok hirekin! Beste holako bat eite baiiek haizie hartzea bialduko haut!".

LEPO: asko.

"*Lepo* matte haut, ear hori!".

LERDUE:

1) Pertsona lerdue: lelue, motza; tontue berez izen ez arren, holako erteeran bat ein duna.

"Hi haiz *lerdue*, gaztañak neguen bakarrik saltzexkiabe hemen, segiyok etxea!".

2) Egualdi lerdue, haize lerdue, bero lerdue.

"Kriston egualdi *lerdue* zion, etzion asmatzeik!".

3) Jateko lerdue: lehorra, janeziñe.

"Kroasan hoyek *lerdo* xamarrak zaudek".

4) Mozkortzie

"Atzo earki *lerdotu* hitzean!".

LIBERDIYE: libra erdiye, 250 gramo.

"*Liberdi* bat irin emango al diezu, faorez?".

LIKIE: kapa pegajosue.

"Karameluek euzkitan eon die ta oin kriston *likie* daukebe!".

LITXE: tela ta erropatan eoteien xakarrak, illien antzekuek.

"Lehengo urtetik jantzi gabe txaketie, ta armayotik atea detenien, *lithez* beteta zeon".

LIXIBIE EMAN: palizie eman.

“Atzo Alberdik kriston *lixibie eman* ziyoan kontrayuei! 6yen laga zian!”.

LOKUMUTXE BOTA: siestatxue ein.

“Bazkalondun telebisiyo aurrin jarri nauk ta *lokumutx* politte bota diat”.

LORAUTE/LORA-LORA INDE: piripi, moxkortuta.

“Atzo pixket *loraute* alleau nitxiñan etxea, ta han jardun niñenan sukaldin dantzan bakar-bakarrik!”.

LOTSABAIE: lotsagabie.

“Oso *lotsabaie* da ume hori, eztakit nun ikixteun holakuk esaten!”.

LUZEITXIZ EON: luze iritzita eon.

“Alleau haiz, azkenien. Normalien baño denbora geyo ez al den pasau?
Luzeitxiz natxaonan!”.

M

MAKAKORRUE: diarra.

"Ikasliek bullaka ai hitunan, baño *makakorru* bat bota zonabet, ta ixildu ditun azkenien!".

MALAHOSTIYE:

1) Malahostiye harrapau: hasarrau.

"Gaur goizien kotxie hartzea jun ta multie zaukela ikusi detenien kriston *malahostiye* harrapau diat!".

2) Malahostiye euki: petrala izen.


"Argi ibili hai horrekin, kriston *malahostiye* zaukek eta!".

MALAMANERAN: modu desegokiyen/txapuzeruen.

"Beti azken orduen eta presaka ibiltze gea lanak buka-tzen, *malamaneran!* la hurrunguen lehenuo haste gean!".

MALLUBIYE: marrubi txiki basatiye (mendikue).

"Mendi bueltie eitea jun nitxiñan, ta a ze erregalue: *mallubiyek!* Ez niñenan beteka haundik harrapau, baño goxuek zaudenan ba!".



MAMAXA: saltsa.

"Zapatu gabien bazan *mamaxa* baztarretan, jende pillue zebillen kalien!".

MANTSUATIK: azkar.

"Sagar harrapatzea jun giñen lehenguen baño *mantsuatik* aldein genun nagusiye etortzen ikusi genunien".

MANTXURRIANUE: erdaldune.

"*Mantxurrianue* hots ein izen zakobe gure herriyen erdaldunei".

MARKARRIYE: jostunek tela markatzeko erabiltze debena.

"Santotomasetako baxerritar jantziye ein beher diyot bilobai, ta telie markatzeko *markarriye* ibilikoet".

MARMARRIEN JARDUN: gaizki-esaka ibili.

"Hoyek *marmarren jardun* bai lepo, baño geo eztebe ezerre eiten!".

MARRUSKAU: igurtzi, gaxtau.

"Prakak dana *marruskaute* zazkenat ipurtaldien... Belaxe zulau eingo zizten!"

MARTXA EIN: jun, aldein.

"Berandu hunan, ta *martxa ein* giñenan etxe aldea".

MASHURIKO KATARRUE: txixeko infeziyue.

"Harri hotzan gainien exerite hao ta kontuz ibili hai, bestela *maskuriko katarrue* harrapaukoen!".

MASPILDU: zapalduta geldiu.

"Atea hitzan txermen hoyek poltsatik, bestela dana *maspilduko* ditun".

MATXARDIE: sendue.

"Emakume *matxardie* hunan gure amama, eoeñek etzonan hari kontra eiten!".

MAXPAXTUTE: azala ximurtute.

"Erten hai azkar bañeratik, dana *maxpaxtute* geldiuko haiz bestela!".

MELANPERAHUE HARTU: kolpe haundiye hartu.

"Azkeneko eskallerie etzun ikusi, ta kriston *melanperakue hartu* zun gaixuek!".

MELOKOTOIKUE: mozkorra.

"Kriston *melokotoikue* harrapau zian lehengo zapatuen!".

MERKEXURRIEN IBILI: xurkeyen ibili.

"Ez hai *merkexurrien* ibili, azkenien garestiyo ertetzeik eta!".

MERTZI: eskerrik asko.

"Eskerrik asko esan beherrien, askotan *mertzi* esatet, motxoue da ta".

MESANOTXIE: ohe ondoko altzari auxiliarra.

"*Mesanotxie* trastez beteta eukitzeiat jeneralien".

MIHIZTU: mingaño pasau.

"Zauri txiki bat eindakuen txakurrek *mihiztie* ona dala esatebe".

MIKIE/MIKHINE: jaten exkaxa.

"Ez hai *mikie* izen ta proaizak behintzet, kristonak zeudek eta!"

MIXURKIE: albarikokie.

"Ze earrak izeteien *mixurkak!*".

MIZTUE BOTA: hitzekin miñ ematea jun (benenue bota hitz eiteakuen).

"Hire lagunekin ez hasarauta hobe, *miztue botatzeik* eta!".

MOKOFIÑE: jateko gauza goxuek bakarrik gustatze zaixkona, sibarita.

"Hi gure etxekue izen ta nolatan erten den hain *mokofiñe?*".

MO(R)OHILLE: arto-iriñekin eindako ogi moruko jateko bat.

"*Mookille* lehorra izetea, baño zopak einde nei gustatze zat".

MOTXAILIE: ofiziyue, astuen ile-moztailie (ijituek zenbait kasutan).

"Aizpurutxoko *motxailie* etorri ohi zan gure astuei illie moztea".

... **-MOTZA**: haundiye (izter-motzak, neska/mutil-motza).

"Hoyeitun *izter-motzak* dauzkena zuen neska kozkorrak. Etzion janbe!".

MOTZANEKUE: oso buruargiye eztana.

"*Motzanekue* den hori, ez tin txiste bat harrapatzen!".

MOXKIYE: moxkeue, kurioxidadie.

"Jertsie eztiñat billatzen, kriston *moxkiye* zaukenat!".

MUNDIALA IZEN: earra izen.


"Zure lagune *mundiala* da, kriston parriek ein genitun beakin!".

MUNIXIPALA, MUNIPIE: udaltzaine.

"Kotxe hori zihero geixki aparkauta dao, ta *munixipalai* abixatzea nijue, ia multie jartzeyon!".

MURGIL EIN: buruzka saltau (pistina-eo).

"Guk gaztetan *murgilien* saltau ohi genun Getaiko puertotik".



MUSKIRAK: mukiye.

"Ume hori beti *muskirak* dayola ditula ibiltzea".

MUSUBOZA: muskira asko

dauzkeunien eukitze deun ahotsa.

"Katarro earra harrapau den! Hoi *musuboza* daukenana!".

MUTUR-HAIZIE: haize hotza.


"Banitxin azkar epeleta! Hoi *mutur-haizie* daona!".

MUTURREK HAUTSIBEHERRIN: presaka.

"Lan danak bukau nayan *muturrek hautsibeherrin* ibili nauk, baño, azkenien, harrapau diat autobuse!".

MUTXIKINE: sagarra edo antzeko frutan bat jandakuen gelditzean bihotza ta ingurue.

"Hoi gosie naukena! Sagarra jaten hasi ta iye *mutxikine*'re jan ein diñat!".



N

NABARRA: jaxpeaue.

“Kamixeta *nabar* hori geyo gustatze zitek, eztek hain bistosue”.

NAHENANA: nahi denana.

“Beti hik *nahenana* eiteiñau!”.

NAHIGABIE: ondoeza, barruko tristurie.

“Etzakinat ze pasatze zaten, baño kriston *nahigabie* zaukenat...”.

NAHIKUE DI(N)AU! : zezekin nazkautekuen eo aitutakue ez gustautakuen.

“Eztekelat santotomasetan erten beher? *Nahikue diau!*”.

NATULA IZEN: autentikue/jatorra izen.

“Hori kriston tipa *natula* den, beakin eozeiñ tokita jungo nitxiñan!”.

NAUNAK NAUNA: bakoitzek nahi duna.


“Noa jungo gea, goiko tabernata ala beheko tabernata? *Naunak nauna!*”.

NAXIMENTUE: Gabonetako jaiotza.

“Gure amak oindiken urtero jartzeik *naximentue* etxeko sarreran”.

NAZKANTIE: latie eo nazkie emateuna.

“Guazeyon beste taberna batea, tipo hori *nazkante* hutse den, ta eztiñat nahi gurekin katiatzie”.



NAZKAU EZ! : batemat latie ematen ai zaigunien esan ohi da.
 "Hoi dek latie ematen ai haizena. *Nazkau ez!*".

NERE AMAMAK POTRUK EUKI IZEN BALITU... **ATTITTE!** : batemat balizko gauza ezinezkuei buruz ai danien, erantzuteko ibiltzean espresiyue.
 - "Ni pixket altuo izen banitzen balontzestoko jokalaye izengo nitzen...
 - Bai, ta nere amamak potruk euki izen balitu, *attitte izengo zan!*".

NERE GOENIEN: ni jayo ezkeo, ni akordatze naizeneko kontu bat danien.
 "Etxe hoyek noiz ein zien? Eztie hain zaharrak, *nere goenien* ein zien".

NEURE PAEZERRIN: nire iritziyen.
 "Hori etziok ondo inda, *neure paezerrin*".

NIKE NAHIHO NIKE NIKE NIKIYE! : batematek eiteko zalle dan edo geyegizkue dan zeoze eskatzeunien ibiltzean esamoldie.
 - Ama, eskaparetien dauden zapatilla gorri hoyek nahi ditut.
 - Bai, hoixe! *Nike nahiko nike Nike nikiye!*".

NOKIEROKUE EMAN: ezezkie eman.
 "Ze, *nokierokue eman* al din? Lasai, hurrungun onartukoin inbitaziyue!".

NORTANAHI'RE: dana dalar'e.
 "Gure plana suspendiu ein dala? Bueno, *nortanahi're* ezin izengo nun jun".

NUN O HAN: nunbaiten.
 "Xei hilebeteako jun hunan biajatzea, ta *nun o han* ibilikoan!".

NUNONUN: nunbaiten.
 "Etxeko giltzek ezitxiat billatzen baño *nunonun* azaldukoituk!".

O

ODOLBITUE: odola koagulauta.

"Lehenguen kriston kolpie hartu nun bihetzien, ta oin *odolbitu* txiki bat dauket azkazal barruen".

OILLO HABIYE: bi titiyen arteko kanalillue.

"Gure amamak *oillo habiyen* gorde ohi ziñenan ezpañetako pinturie".

OILLUEK TXIXE EITEAKO: denbora asko tardatzie.

"Oindik ez al den bukau? *Oilluek txixe* eiteako bukaukoen, akaso!".

OILLO NARRUE: oillo ipurdiye.

"Uretatik erten nunien, haizie zebilen ta *oillo narruekin* alleau nitzen toaja!".

OILLUEN IPURDIYE JANDA EON: hitz eiteko goue euki.

"*Oilluen ipurdiye* jan al dek? Ez haiz ixildu're ein alleau haizenetik!".

OILLOBUSTIYE IZEN: kobardie izen.

"Hi haiz, hi, *oillobustiye!* Atrebiu hai!".

OINDIK OIN: oain dala gutxi.

"*Oindik* oin aitu diñat nik horrei buruz hitz eiten!".

ONENAK EMAN DITXIN/H HORREK!: batematek bere xaxoi punttue galdu dula.

"Pelota partidue galdu ein al dik gaur'e?
Onenak eman ditzik horrek!".



ONENAN PARE EON: earki eon.

"Hamakan etzanda *onenan pare* nitxion, batematek zumotxo bat ekartzie bakarrik falta ziten!".

ONENAN PARE PAGAU: asko pagau.

"Atzo jatetxea jun gitxiñan nere urtebetetzie ospatzea. Iye gosiek geldiu gitxina baño *pagau onenan pare* ein giñenan!".

ONTXE LEHENTXUEN: oain dala gutxi.

"*Ontxe lehentxuen* hitz ein diñat beakin, ta ondo zaonan".

ONTXINTXUEK: umetan jolaseako ibiltzeien sukaldeko ontzi txikiyek.

"Nere iloba txikiyek zenbat bazkai preparau dixkigun bere *ontxintxuekin*!".

ORAIÑE: peka haundiye.

"Nik *oraiñ* bat natxakenan bizkerrien, ta bazpare medikuna jun da kendu ein niñenan".

ORIAU: aire-berritu.

"Erropak kriston tabako usayekin ekarri nitun zapatuen, ta etxea jun nitzenien, balkoien utzi nitun *oriatzen*".

OSTIYEH SALTSA BERDIN!: baita zea're , ezta pentsau're.

"Biyer'e nei tokatze zatela tabernie irikitzie! *Ostiyek saltsa berdin!* Jutie zaukek beak nahi baldin baik!".

OSTIYENA JO: latie eman, bazilau.

"*Ostiyena jotzen* ai zitean, ta haizie hartzea bialdu nian!".

OSTIZAPARRAIE EUKI: xaxoie euki.

"Hoi den *ostizaparraie daukena* hire anayek! Urreta zazpi minutun alleau omen den!".

OSTROKUE: etxe berri bati teilatue eindakuen hori ospatzeko eitean afaye-eo. Gaur egun, batemat etxe berri batea jundakuen hori ospatzeko eiten dan afaye-eo.

"Etxe berrire jun haizela bizitzea? Ta noiz ein beher deu *ostrokue*?"

OTXANDU HAI! : lasaitu hai! (otzandu).

"Hi, zea, *otxandu hai*, e! Nei hola ez hitz ein, bestela bakarrizketan segiukoek!"

OTXOKUARTUEK: (esamoldie).

"Ze telebisiyo ta ze *otxokuarto*, segiyok ohera derrepentien!"

OTZI/OTZOK/OTZON: tori (zuka/toka/noka).

"Denda batien:

- Ogi haundi bat emango al dien?
- Bai, *otzon!*"

P

PAERAN: eskura.

“*Paeran* tokatze bazan, hartuko al dien, faorez, neretzako’re beste bat?”.

PANDEPLATA: bizkotxue.

“Nik kriston *pandeplatie* eiteñat, hurrungun ekarrikoñat hamaiketakue eiteko!”.

PANPANUE: luzie.

“Zuen seme *panpano* horrek etzakiat nundik erten dun!”.

PANPOTIE: lasaye, patxarosie.

“Hire ume jayoberri hori *panpotatxo* bat den, hoi den patxarie daukena!”.

PAOLAK KONTAU: ipuin, ixtori eo alperrikako gauzak kontau.

“Kalien presaka nijuela harrapau natxin, ta *paolak* kontatzen hasi ziten. Azkenien moztu ta aldein ein zonat!”.

PAOTXA: suertie, txollue.

“Hoi dek *paotxa!* Dana 10 euron azpitik zioke denda hortan!”.

PAPARRETIK HELDU: petxutik eutsi.

“Zihero hasarrau huan ta lagunei *paparretik heldu* ziyoan”.

PATATA ZULUE: zulue erropatan (kaltzetinetan, prakatan...).

“Pilatesea jun naunenien, zapatillak kendu ditxiñat, ta hoi den *patata zulue* naukena kaltzetiñetan!”.

PAXARIE (ITO-PAXARIE, BAZKAI-PAXARIE): (esamoldie).

“Getaitik Zarautzea igeriyeen juteko trabesiyeen parte hartu niñenan, ta, hasieran, kriston *ito-paxarie* hartu niñenan, jende asko zaonan da!”.

PAXIRA JUN/PAXIRAN EIN: pasiera ein.

"Egualdi earra zaonan ta Loiola *jun* gaitun *paxiran*".

PEA-PEA EINDA: oso gertu.

"Gaztetan, berbenan, agarraue tokatze zanien, *pea-pea* einda eite gendun dantza".

PEGAIKO: batemati ordainetan eman.

"Aurreko aldiyen etziyonan kasoik ein ta oin *pegaixo* ein zion!".

PENDIZE: aldapa pikie.

"Zuen basaritik goiko zelaire kriston *pendize* zion!".

PEPITAK: pipak.

"Batzuk sokamuturrea zezena ikustea baño geyo *pepitak* jatea juteiela esango nuke".

PERKAXA: pertxuntina.

"Hoixe nexka koxkor *perkaxa* daukezutena etxien! Beti apain-apain!".

PERLIE: ezpaiñ gañeko grano-moukue.

"Lehengo zapatuen juerga ein niñenan ta astelehenin *perliek* erten zitenan. Hemen ezer ezten debalde!".

PERTZ (PERTZA, PERTZIEN, PERTZERO): bakarrik.

"Kriston gosie zaukeat ta bokadillue *pertzien* jan beher diat, etzoat iñorrei pusketaik eman beher".

PETO:

1) Peto eon: diruik gabe eon.

"Trague hik pagau
beherko dek, ni *peto*
nitxiok ta!".

2) Peto petue izen:

guztizkue, erabatekue.
"Hire lagune axkoitiar *peto petue* dek,
ahue iriki orduko antzemate zikok!".

PIKIE (ALDAPIE): aldapa haundiye, oso
tentie.

"Azketatik gora zuzenien junda daon
aldapie baño *pikioe* iyo giñenan lehengo
jayen! Kendu zizkunan berriketako gouek!".

PIPAK JATEN EIN: errez.

"Hoi den errez eskalau, aizan!
Pipak jaten ein den bide hori!".

PIPERTUTA EON: petralduta eon.

"Gaur, *pipertuta* jaiki naiz ta kontuz ze
esateiezuen!".

PITTINE: pixket, gutxi.

"Afaltzeko arrai-zopie zeon,
baño ni berandu alleau naiz
ta *pittin bat* besteik etzat
alleau!".



PITTIARRI-PITTIARRI EOTIE: bero-bero einda eotie.

"Agarraue pea-pea inde iteakun *pittirri-pittirri* jartze naun!".

PIURIE EUKI: itxura xelebrie euki.

"Hoi den *piurie* daukena horrek! Ibilu ein beher din erropa hoyekin!".

PLATANITUEK EMAN: erdi-mareau

(porrue erre ondoren batzutan gertatzeanai esan ohi zako).

"Lehenguen, *platanituek eman zitean* ta kuadrillakuek lagundu ziteabea etxea".

PLAZA BERDURIE: azoka plazie.

"Herri bazkaye *plaza berduran* izetekue da".

PLIX: mesedez, faborez.

"Atie irikiko, *plix*?".

PORLOS: por los cojones, baita zea're.

"Biyer goizeko bostetan abiyau beher deula? Bai, *portos* jaikiko nauk ni garai hortako!".

POTROERTZEKUE HARTU: disgustue hartu.

"Lanetik bota zebeien, kriston *potroertzekue* hartu zuen".



POTROJORRAN ATXUR TXIKIYEKIN: kolpe goorrik jo gabe, alperkeyen.
 "Beste danok lanien, ta beak atsalde osun *potrojorran atxur txikiyekin* jardun din!".

POTROLLUE: erropak pelota einda daudenien.
 "Erropak ez sartu maletan *potrollun!*".

POTT EINDA EON: xixko einda eon, nekauta eon.
 "Gaur tope jardun det lanien ta *pott einda nao*".

POTXOKEYE: kutrie.
 "Buztiñezko figura bat eiten sayau naiz, ta hoi *potxokeye* erten zatena!".

POXBERRI: notizi ona.
 "*Poxberri* bat zaukenat! Zelebrau ein beher diñau!".

PULAMENTUE: fundamentue.
 "Hoi dek *pulamentu* kaxkarra daukekena... Hola eztek belakun aproauko!".

PUNTAPAXA: iltzie.
 "Arotzan inguruen ezkie falta izeten mallue ta *puntapaxak*".

PUNTTE-PUNTTEKUE IZEN/PUNTTE-PUNTTEN EON:

- 1) Puntte-punttekue: oso ona.
 "*Puntte-puntteko* bizikletie erosi dik. Hori erain gabe're hortxe nunbait jungoek!".
- 2) Puntte-puntten eon: sasoiko eon.
 "Hiru minutu azpitik ein diñat kilometrue laixtrekan, *puntte-puntten* nitxion!".

PUNTXE EUKI: inderra, sasoie euki.

"*Puntx* pixket falta zan! Rokodromuen entrenau zan ta ikusikoen nola irabazikoenan!".

PUTETXEKO MADRIE: bai zea!.

"Bai, *putetxeko madrie*! Hori nola ingoiau ba!".

R

RAKA-RAKA: asko.

"Gazte denboran, dirue *raka-raka* gastatze zian!".

S

SAGARDUE PROBATZEA EMAN BATEMAT: batemat psikiatrikoa ematebenin esatea.
 "Hire goikue *sagardue probatzea eman* omen diabe".

SAKAPEZULUE: basarriko ikulutan eskailerapeko zulue.
 "Gure amamak *sakapezuluen* ixkutatze ziztenan iñok bilatzie nahi ez zitun gauzak".

SALAJOSA: sala de juegos-a.
 "*Salajos* kanpuen gaztetxo mordue zeon".

SEKO: erabat, guztiz.
 "Seko aldrebestute zabilen aspaldiyeen, etzakiñat nola bukau beher dun!".

SENPERRENAK: kristonak esan.
 "Han ez huan giro, alkarrei *senperrenak* esantzizkoaben!".

SOPASOBRIE: sobreko zopie.
 "Konparaziyoik eztao *sopasobrie* ta nere amak preparatzeun zopien artien. Nere amana mille aldiz hobie!".

SUBIE: pizti narrastiye.
 "Uderako bero sargori hoyetan izetea *subie* zelai baztarretan".

SUGELINDERIE: sugandila, lagartija.
 "*Sugelinderiei* buztena moztu ezkeo, berriz hazte omen zako".



SUPIXTAILLIE IZEN: xirikatzailie izen, diskusiyue pizten trebie.

"Zer haiz ba, hi, *supixtaillie* halakue! Hi etorri arte danok pake pakien gatxaudean, ta hi etorri ta danok diskusiyuen jarri gaituk!".

SUSTOTAKO LAIN EIN: susto asko ematen ditunakin ibiltzean esamoldie.

"Kotxien atzetik eman diñabela? Hirekin eztiñau *sustotako lain eiten!* Eskerrak, behintzet, ondo haonan!".

SUZKO ERROBERAK: su artifizialak.

"Oin, *suzko erroberak* Esklabatatik botatzeitube".

T

TAKAIE: kolpie.

"Nere kotxie aparkaute zeola *takaie* eman zonabe, baño papeltxo batien telefono bat utzi ziben katiante. Jende jatorra're bazion!".

TALO ARPEYE: arpei borobille ta zapala.

"Hoi *talo arpeye* dakena zuen etxepeko horrek! Marrazki bizidunetako pertsonaje bat ematein!".

TARRATAIE: erropie puskatzie.

"Gauza bat hartzea makurtu nitxiñan ta prakatan kriston *tarrataie* ein zitenan ipurdi parien!".

TAXIXE: taxiye.

"Lehengo zapatuen, Axkoitire jun gitxian parranda ta *taxixien* bueltau gitxian".

TIPO HORTA: hola.

"Ze, *tipo horta*, hi?".

TIRTIRIYE: geldik eote eztana.

"Zuen ume hori *tirtiri* hutse den! Ezten belakun geldik eoten!".

TITIBALANTZIE: titiyen balantzie.

"Sostenak jaztie ahaztuta erten niñenan laixtreka eitea ta hoi den *titibalantzie* ibili nuna!".

TITIOKERRA: iraintzeko esamoldie.

"Ni zanpana? Ba hi, *titiokerra*!".

TOAJIE: toallie.

"*Toajie* bizkerrin hartu ta plaire nitxin!".

TOLOSTAU: txukun doblau.

"Hire maletie ikustie gozada bat den, erropa danak ondo-ondo *tolostautu* eukitzeitun!".

TONTO FALTIE ETORRIKOEK GAANTA LAIXTE!:
(esamoldie).

" - Nik nere semie unibertsidadea jutie nahi diat, gero lana errezo bilatzeko.

- Lana bilatzeko unibertsidadea bialdu? Eonai, *tonto faltie etorrikoek gaanta laixte!*".



TONTOHARRUE: dakiyena baño geyo dakiyela xinistu ta harrokeyen ibiltzeana.
 “Dana jakingo balu bezela hitz eitein, baño *tontoharro* bat den!”.

TONTO PLANTAN: ustekabien, espero izen gabe.
 “Lanak axkar bukauko giñuzela, baño *tonto plantan* gaueko hamarrak jo zizkuan!”.

TONTO USAYE: lanixie.
 “Honek kendukotxik hiri *tonto usayek*!”.

TOPOLLUE: korapillue eztarriyen.
 “Behingoz sentitze nuna esan beher nitxoan, baño eztarriyen *topollue* jarri zitean ta ez nitxoan ezerre esan”.

TORDUE: kaka mokordue.
 “Kriston *tordue* ein diñat, gustoa geldiu naun ba!”.

TOTALA IZEN: earra izen zeoze eo batemat.
 “Ein denan marrazki hori *totala* den! Lepo gustau ziten!”.

TRAJEBANUE: uretan bañatzeko erropie.
 “Igeritan ikixteko ikastaruen apuntau naun, ta *trajebañue* erosi beher diñat”.

TRASTELEYE: traste asko.
 “Hoi dek *trasteleye*! Zer hijue, astebukaerako ala hillebeteako?”.

TRIPAK BOTA: parrez lehertu.
 “Astearte Karnabal goizien *tripak bota* nitxian gaupaseruei beira!”.

TRIPEJANA: urduritasune.

"Examiñen aurretik kriston *tripejana* euki niñenan, baño, azkenien, nahiko ondo erten zitenan!".

TRIPEKAIE: betekaie.

"Atzo baba-jana euki giñean ta kriston *tripekaie* harrapau nian!".

TRIXKILLAU: mastrikau, txiki-txiki einda laga.

"Harri kozkor batekin hasi nitxiñan intxaurre txikitzen ta dana *trixkillaute* utzi niñenan, ezin izen niñenan ezerre jan!".

TURBUE SARTU: zerbait azkar ein.

"*Turbue sartute* ibili beher izen diat lanak garaiz bukatzeko".

TXABAKANUE: txoniye.

"Bere ustetan eleante jantzita ibiltzen, baño nere ustez, *txabakano* hutse den".

TXABETIE FALTA: burutik ondo ez eon.

"Ze esaten ai haiz? Hiri *txabetie* falta al zak?".

TXAFLIYER: antijo beltzak.

"Hoi *txafli* txuluek dauzkekana! Nundik atea dituk?".

TXAKALALDIYE: pajarie, batzutan kirola eiteakuen etortzean ahuldadie.

"Lehengoko mendi martxan ez niñenan beher aiñe jan, ta bukaeran, *txakalaldiye* harrapau niñenan".

TXAKURREK ZAUZKEN/H BUZTENPIEN! : zeoze eztala errez lortzen, dirue konparaziyo batea.

"Loteriye tokatzen hasite 5000 euro eztala bate? *Txakurrek zeuzkek buztenpien!*".

TXAKURREN BOSTKUADRUH! : bai zeal.

"100 euroko multie pagau beher detela horreatiken? *Txakurren bostkuadruk!*".

TXAKURREN PLAUTIE!/TXAKURREN POTRUH (SALTSAN)! : bai zeal.

"Bai, *txakurren plautie!* Hori nola ingoiau ba?".

TXALA (TXALA EIN, TXALANA EIN, TXALGURIE EUKI): botaka, gonbitoka.

"Kotxe barruen ein din txalana, ta a ze txerrikeye!".

TXALAMATIKIE: jende askok batea hitz eiteakun sortzean zaratie.

"Etxepeko bilera berandu alleau nitxian, ta kriston *txalamatikie* zaoan han!".

TXALBURUE: zapaburue.

"Azketako potzutik *txalburuek* hartu ta iturriko antixunien sartzen ibili ohi gitxiñan txikitan".

TXALINGERRA: txandar klase bat.

"Gu gaztetan uniformiekin bezela ibiltze giñen, danok *txalingerra* jantzita!".

TXANKAMELUE: meheie, exkaxa.

"*Txankamelo* horrei nik irabazi ez laxtrekapustue? Ez, zeal!".

TXANKAMIE: hanka mehiek dauzkena.

"Hoi dek piurie ateatzekena praka hoyekin! *Txankame* hutse ikuste haiz!".

TXANTXIORTU: euzkitan erre.

"Segiyok itzelea, bestela *txantxiortu* eingo haiz!".

TXAPABERA: batematek asmau eztunien esan dunakin.

"Buuuuuu... *txapabera*! Hoi erteera epela bota dekena!".

TXARRANIEN: dantza lotuen eitie. (Txarran/Txerren = deabrua).

"Gazte denboran *txarranien* eiteko desiatzen eote gitxiñan".

TXARRASTAIE: kafiei gañetik botatze zakon koñaka-eo.

"Nei kafie *txarrastaiekin* hartzie gustatze zat".

TXARRETERIE: prakatako kremallerie.

"Irakasliek *txarreterie* irikite zaukenan, ta ikasle danak parrez!".

TXATARRIE: txanponak.

"Itxulapikuen *txatarrie* zaukeat nik lepo, papelik batez!".

TXENARAK: enarak.

"Ba al dakizu *txenarak* beti alturatik hasi beher izetebela hegan? Bestela, hego luziek dauzkeenez, lurre jotzebe ta ezin hegan abiyau".

TXEPEL: ahul.

"Hoixe ille *txepela* daukena ume horrek!".

TXERMENA: udarie (frutie).

"Sagarra ta *txermena*, biyek gustatze zatxit igualtsu".

TXERRAPELEKUE: mozkorra.

"Hoi *txerrapelekue* harrapau genduna lehengokuen!".

TXERRIKEYE: zeeze kaxkarra, txarra.

"Dana presaka ta malamaneran ein det, ta emaitze *txerrieki* bat izen da".

TXIKITO HAIZIE: Aste Santutan eon ohi dan haize hotza.

"*Txikito haizie* daola? Aitzakiye galanta hori, mezeta ez juteko!".

TXIKIUTE:

1) Txikiute geldiu/laga: harritute.

"Hori esan dunin, *txikiute* laga natxin".

2) Txikiute eon: oso nekauta eon.

"Egun osuen lanin tope jardun diat, ta *txiki-txiki* einde nitxiok".

TXIKLE EIN: eonien eon, aspertu.

"Txikle einde geldiu nauk hire zai hementxe!".

TXIMETANO EON: nazkauta eon.

"*Tximetaño nao* zure aitzakiyekin!".



TXIMU EINDE: blai einde.

"Eurik etzula eingo ta guardasolik hartu ez, baño gero ekaitz galanta etorri ta *tximu einde* etxea!".

TXIPIROIE SARTU: drogie sartu sudurretik.

"Nei *txipiroie sartziek* baño geyo eragiteit kafe bat hartziek".

TXIRRINGALIEKIN IBILI: erroberiekin jolasien ibili.

"Gure atte-ta txikitan *txirringaliek* ibiltze omen zien".

TXIRTIRIKITA: erdi-irikita.

"Atie *txirtirikiyen* utzi haizie sartzeko".

TXITI AINE JAN: gutxi jan.

"*Txiti aine* jateik ume horrek. Hola eztek bela haziko!".

TXIUR-TXIUR: platerie eo hezurre garbi-garbi laga, bate jatekoik gabe.

"Kontxitak esateun bezela, platerie *txiur-txiur* einde laga det. Earra zeon ba!".

TXIXEK EIN: parrez lehertu.

"Txistiek kontatzen hasi zanien, *txixek ein* giñuzen!".

TXOFERTU: gidatu (kotxie-eo).

"*Txofertzeko* karneta atea al huan?".

TXOIXOPANPLONA: txorixo panplona.

"Merindatzeko nei geyena *txoixopanplona* ogi artien gustatze zat".

TXOKAUTA: harrituta.

"Etzula etorri beher esan zunin, *txokauta* geldiu nitzen. Ordu arte kriston ilusiyue zauken".

TXOKILLE: bihurrikein bat eo astakein bat eiten dunai esan ohi zako.

"*Txokille* halakue! Ze ein den oinguen!".

TXOKORRIEN: bazterrien, ixkiñan.

"Zuen txakur hori oso izue den, beti *txokorrien* eoten".

TXOLINE: txorue.

"*Txolin* xamarra den hori, beti arinkeyen".

TXORABIYUE: zorabiyue, mareue.

"Tentsiyue jetxi zitenan, ta *txorabiyau* ein nitxiñan".

TXORI-TRANPIE: eskue poltxikuen sartu bai, ordaintzeko plantak eiñez, baño ateatzen eztuna.


"Horrek beti *txori-tranpie* ipintzein, ez tin sekula pagatzen".

TXORO HAIXIE: lañixie.

"Kriston *txoro haixie* sartu zigunan, ta dantzan ibili gitxiñañ jo ta ke!".

TXOTILDU HAI!: lasaitu hai!

"*Txotildu hai*, hi! Eztek ba pentsauko bullaka hitz eiteatik arrazoie emango diatenik?".



TXOTX BERRI: maitasun berri.

"Bere *txox berriyekin* etorri huan lehenguen afaire".

TXOXTU: diru pixket irabazi, aberastu.

"Loteriye tokau zikonan, *txoxtu* hunan, ta dana haixeatu!".

TXUKUNDADIE: narrazkeye ironikoki.

"Ze *txukundade* da hau? Zuek etxien bakarrik uzteik etziok!".

TXUPAS: bestien konture eo muxutruk.

"Earki habil, hi, *txupasien!*".

TXUSTERRA: erretzeko porru bukaerie.

"Hi, pasaiek *txusterra!* Dana heuk erre beher al dek, ala?".

TXUTAIE (EMAN/JO): ostikaie.

"*Txutan* jo ta Australire bialduko haut hegan ixiltze ez ba haiz!".

U

UJELDAR: uholdiek.

“Euriye goyen-behien ein ziñenan, ta, azkeneako, *ujeldak!*”.

UMEDADIE: ume asko eotie; adibidez, taberna baten gaztetxo asko daonien.

“Taberna hortan kriston *umedadie* eoten. Nik pasau eiteñat jutie!”.

UME OSTIYE: batematei erdi-iraintzeko eo ironiz esan ohi zako.

“Hi haiz *ume ostiye!* Ez huala bate entrenau ta gaurko apustue irabazi ein dek!”.

UMEPUTIE: ume moko bat.

“Nola eman diyok responsabilidade hori? *Umepute* bat eztek ba!”.

UMETIRRINE: tirtiriye, moitue.

“Hi haiz *umetirriñe!* Geldik eon beherkoek ba?”.

URTEBETETZIE: urtemugie.

“Nere osaba hasarrau eitea ‘*nere zorionak die*’ esandako bakoitzien, *urtebetetzie* esan beher omen da”.

UR-ZIKINE: infusiyue.

“Gaurre *ur-zikin* hori hartu beher al dek! Hartu zak fundamentuzko kafe bat, behingoz!”.

X

XAFI EIN: alde ein.

"Ze panorama zeon ikusi zunien, *xafi* ein ziñenan derrepentien".

XAGUXATARRA: xaguxarra.

"Atzo iluntzien, paxiran genbiltzela, *xaguxatar* bat ikusi gendun".

XAHARKO: semietan zaharrena. Attei xaharra ta seme zaharrenai xaharko esate zako.

"Oindik hain zaharra ez haiz, baño hi haiz gure etxeko *xaharko*".

XAKAUE: palizie hartu/eman kirola eiten.

"Kriston *xakaue* hartu giñean mendira iyotzeakuen!".

XALAITUAI!: lasaitu hai!

"*Xalaituai*, hi! Ze presa daukek?".

XALIE: plazerrak gustatze zaizkona (drogak, sexue, jatie...).

"Hi berez haiz *xalie*, gozamena emateun dana gustatze zan!".

XANUE: inuxentie.

"*Xanue* den, ba, zuen semie! Bat'e malizik etzauken!".

XAPATERO GERAU: pelotan kaleazka jokatzeakuen aleik irabazte etzunai esate zitzekon.

"Galdu ein dek! *Xapatero gerau* haiz!".

XAXAU: batemat xirikau, txakurre xirikau hortzaka eiteko.

"Hire lehengusu hori hor ibili den nere anaye *xaxau* ta *xaxau*. Azkenien, ipurtxontxorreko bat jasota jun den etxea".

XAXPIKIYE IZEN: tirtiriye, petrala.

"*Xaxpiki* hutse dek hori, motell!".

XAXOIE EURI: fisikoki forman eon.

"Astero, Erloaiño jutek. Horrek zeukek *xaxoie*!".

XEI: sei zenbakiye.

"*Xei* laun juntau gitxiñan afaltzeko".

XEMEIKO: xentimo.

"*Xemeikoik* gabe gerau nitxiñan aurrekuen parrandan".

XERA XERIE: oso leune. Oin esatean bezela, "xuabe-xuabe".

"Puntozko jertsie eintzien amak, *xera xerie* den".

XEXTRIE: diskusiye.

"A ze parie zeatena zuek... Beti *xextran* ta beti batea!".

XINXANGRIE: makinako ebaki deskafinaue.

"Hi beti *xinxangrie* eskatzen! Hartu zak ebaki normal bat, behingoz!".



Z

ZABARRA IZEN: utziye, narratsa izen.

“Tipo hori *zabar* hutse dek, ezтик bere itxurie bate zaitzen”.

ZAINBELARRA: infusiyotako ibiltzean landare klase bat, arpiñe eo bildots-mihiyere esate zako beste leku batzutan.

“*Zainbelarra* oso ona omen da eztariye sendatzeko”.

ZAINTIRETUE: bihurritue, esginzie.

“Jayen ezingoiñat jun mendire, *zaintiretue* sendau gabe zaukenat eta”.

ZAKARRALDIYE EUKI: batemat takar erantzuten ai danien-eo.

“Ze pasau zikon gaur horri? Kriston *zakarraldiye* zauken! Etzonat hitz goxo bat aitu egun osuen!”.

ZAMORRUE:

1 adiera: animalie (bitxitue).

“Ganbaran zeon kaje iriki nun ta dana *zamorroz* beteta zeon!”.

2 adiera: pertsonie (malizidune).

“Hire iloba *zamorro* bat den, beti bihurrikein bat zebilkin buruen”.

ZANBONBAKUE: kolpe haundiye.

“Eskalleratan eroi ta kriston *zanbonbakue* hartu niñenan!”.

ZANKALETERO: umiek lepo
gañien eamatie.
"Nere ilobai *zankaletero* jutie
gustatze zikon".

ZANPANA: emakume tuntune.
"Hi *zanpana* al haiz?".

ZANPANTORTA: eozein egoera
xelebretan talo arpeyekin
geratzeana.
"*Zanpantortie* emate
ziñenan, ez aurea ta ez
atzea!".

ZANPAN ZORTZI: *zanpana*
baño *zanpano*.
"Hi haiz, hi, *zanpan* zortzi!".

ZAPARRAIE ATEA: belozidadie,
xaxoie.
"Kriston *zaparraie* atea zian
Erlon gora! Ordu erdi azpitik
goyen huan!".

ZAPO (LO) EON: lo sakonien eon.
"Gaur gozien, despertadoriek jo dunien, *lo zapo* natxaoan".



ZAPOKETAN IBILI: ixkutaketan ibili (jolasa).
 "Umiek *zapoketan* eztitut aspaldiyeen ikusi".

ZARBUE: ze pentsatzeun, ze ingoun antzemate etzakon pertsonie.
 "Tipo hori *zarbue* iruitze ziten, etzonat antzematen nundik ertengoun".

ZARTAIE HARTU: kolpie hartu.
 "Kotxiekin poste bat jo ta kriston *zartaie hartu* zun".


ZARTAUTA: ezpañek, eskuek... pitzauta.
 "Negue alleau den ta eskuek *zartauta* zazkenat. Utziko al dien, faorez, hire ukendu on hori?".

ZATAR-IPURDIYE: oso zatarra.
 "Eskultura berriye ikusi al den?
 Galanta den, baño neretzat *zatar-ipurdiye're* bai!".

ZATUEK: titiyek.
 "*Zato* earrak zauzken horrek!".

ZE KONTATZEITUN/H?: ze mouz galdetzeko esamoldie.
 "Aspaldiko, ze *kontatzeitun?*".

ZEAKO ZEA: zeoze.
 "Hori konpontzie nahi dekela?
 Bai, *zeako zea* ekarrikoiat nik hori konpontzeko!".



ZEINLENUO: zein zein baño lehenuo.

"Azpeititik Loiola laixtrekan *zeinlenuo* jungo al gea? Baietz nik irabazi!".

ZEKENA IZEN/EON: lehorra.

"Hire lagun hori lehengo asteko ogiye baño *zekeno* den!".

ZE NEZESIDADE: ze beher.

"Ze *nezesidade* zauken horrek nei modu txar hortan hitz eiteko?".

ZEPELA/ZEPELINE HARRAPAU: mozkorra harrapau.

"Kriston *zepeliñe* harrapau nian sansebastianetan. Hurrungo goizien bai natxakeala nik tanborradie burun!".

ZER DA BA HAU/HORI?: zezerri inportantziye kentzeko.

"Bihetz bat falta zakola? *Zer da ba hori*? Pianistie ezten behintzet".

ZESATEITUN/H?: ze esate ditun/k?

"*Zesateituk*? Astakeye astakeyen atzetik botatzen ai haiz!".

ZESATEN AI HAIZ!: batematek zeoze aldrebesa eo harrigarriye esateunien.

"*Zesaten ai haiz*! Lana utzi dekela, azkenien? Hori zelebrau beherra ziok!".

ZIENPORRORAN: azkar, danak emanda.

"Goiz osuen, *zienporroran* ibili naun ta oin neka-neka einde nitxion".

ZIKINESTALIYE: zikiñe ondo diximulatzeun erropie eo kolorie.

"Sukaldeko mantala azul marino kolorekue onena, *zikinestaliye* behintzet".

ZIMELA: fibrosue.

“Garai baten, asko hitunan basarritar *zimelak*. Jateko gutxi ta lana tope, etzaonan jinasiyo beherrik!”.

ZINBILI-ZANBALA: alde batea ta bestea moitzen ibili.

“Batzutan, gustau eite ziten sostenik ez jantzi ta titiyek *zinbili-zanbala* ibiltzie”.

ZIRTI-ZARTIE ATEA: eurre atea, askotan zaratiekin.

“Hoi *zirti-zartie* ibilli debena langilliek gaur arratsaldien!”.

ZOKORMAZUE :

1. Pertsona burugoorra.

“Hi haiz *zokormazue*! Behin gauze bat buruen sartze zakenien, alperrik dek!”.

2. Pertsona lehorra, antipatikue.

“Hire anai hori *zokormazue* baño lehorro dek, kalin ikusitakun etzik kasoik eiten!”.

ZONTZONA: zuntzune, zanpana.

“Alperrik ai gaitun, mille aldiz esplikau arren, eztiñ entendiuko. *Zontzona* den, zihero!”.

ZOPAK EIN: harri txapal bat ur gaiñea bota ta saltoka juteanien.

“Semie ta biyok *zopak eiten* ibili gaitun, gure ume garayetan bezela”.

ZORNIE: zauriye gaiztotuta daonien botatzeun zikiñe.

“Nere attek eundoko zauri zatarra zaken hankan, ta *zornie* ateatze zikon.

Ukendun bat-eo ba al daken pixket goxatzeko?”.

ZUHETZA: belar-metie.

“Loiolabideko rotondan *zuhetza* jarri zebe dekaratzeko, baño batematek erre ein zun”.

ZULDERRA: azalien ertetzean granue, barruen zikiñe eukitzeuna.
"Nei gustau eite zat nere lagunei *zulderrak* lehertzie".

ZUMETAYUE: elizako sarrerien ondoko aterpie.
"Mezeta jun beherrien, *zumetayuen* pelotan ibiltze giñen txikitan".

ZUMITZE: xextuek ta eiteko ibiltzean material fiñ luzexkie.
"Nere kuartun *zumitzezko* aulki bat dauket, ta hor uzteitut erropak".


ZURRUSTAIE: trague.
"Kriston *zurrustaie* bota zio! lye kolpe bakarrien hustu dik basue!".

KONPARAKETAK

- ALPARGATIN SUELIE BAÑO LEHORRO
- AMORRAYE EZTARRIYEN KATIAUTA EUKITZIE BAÑO OHERRO
- ARDAGAYE BAÑO LEHORRO
- ARDUE BAÑO MOZKORRO
- ASTUEN IPURTZULUE BAÑO ZATARRO
- BAATZUIYE BAÑO FIÑO
- BEINTIZINKO BAÑO DOTOREO
- BIZIKLETIEN KUADRUE BAÑO PLAKUO
- EGURREZKO DURUE BAÑO FALTSUO
- ERRIELEKO PELOTIE BAÑO MAHALO
- EZTULE BAÑO ZAHARRO
- GARIZUMIE BAÑO LUZIO
- GRANJAKO OLLAXKUE BAÑO TXURIYO
- INPERNUKO TXIKITUE BAÑO GAIXTUO
- KIE BAÑO ZAHARRO
- KOMUNTZOKO EXKAILLERAK BAÑO FALLO GEYO
- LIPUE BAÑO TXARRO
- PLOMOZKO TXORIYE BAÑO MAHALO
- SUGELINDERIE BAÑO PETRALO
- TERZERAKO ENTIERRUE BAÑO TRISTEO
- TXILINDRUE GANETIK PASAUTA BEZELA
- URRITZ-MAKILLIE BAÑO XUXENO
- ZORTZI EGUNOKO OGIYE BAÑO LEHORRO



AZPEITIKO
TOKI-IZENAK







AZPEITIKO TOKI-IZENAK

- 1 AGIRRENEKO ETXIEK
- 2 ALBERGE ATZIE
- 3 ALBERGIE
- 4 ARTETXENEKO KRUZIE
- 5 ASTOTEYE
- 6 ATZEKOALDETA
- 7 AZAUTZEKO ETXIEK
- 8 AZILONANEKO JARDINE
- 9 BEVERLY HILLS
- 10 BIDEZARRETA
- 11 BUZTINZURIKO PLAZATXOA
- 12 COSTA RICA

- 13 EGUZHITZANEKO PLAZIE
- 14 ERDIKALE BARRENA
- 15 EROSKIHO TORRIEK
- 16 ERROTIE
- 17 ETXE-ZURIKO PLAZIE / PRAZUELIE
- 18 GALTZA BERRI
- 19 IRENTZALLENEKUE
- 20 JAKANEKUE
- 21 JAMAIIKA TXIKIYE
- 22 JOXELITONEKUE
- 23 KANTOIE / TRINKETE ATZIE
- 24 KARAKOLA

- 25 KARASUSANEKO ETXIE
- 26 KASASBARATAS / ZENTENAYOKO ETXIEK
- 27 KUARTEL ZAHARREKO ETXIEK
- 28 MARTXILEN
- 29 MIXIKORDIHO ESTRATIE
- 30 OSPITALEKO ETXIEK
- 31 PARKE BARKO / PARKE PIRATA
- 32 PARKE TXUFO
- 33 PELOTALEKUE
- 34 PERRETXIKUE
- 35 SANAUSTINPIE
- 36 SEPROHIBEKO FRONTOIE

- 37 SORGINTZULO
- 38 TXAPANERKO ZELAYE
- 39 TXAPELENETA
- 40 URBANONERKO ETXIEK
- 41 XANTI LAZKANOKO TORRIEK



EOZER GAUZE ZUZENDU, ALDAU, ERANTSI, KENDU... NAHI IZEN
EZKEO, HONA HEMEN TARTE BAT.

This image shows a single sheet of white paper with horizontal blue or grey ruling lines. The lines are evenly spaced and run across the width of the page. There are approximately 20 lines visible. The paper appears to be a standard notebook page or a sheet of stationery. There is no handwriting or other markings on the page.

